ALBISTEAK

2025 (AZAROA / ABENDUA)

24.korrika aek



Badator 24. KORRIKA!

Kalean da KORRIKA-KANTA!

A1
MAILA
(AMAIERA)

24.korrika aek
Euskara gara
Atharratzetik Bilbora
2026ko martxoaren 19tik 29ra

Badator 24. KORRIKA!



Irudia (AEK): 24. KORRIKAren aurkezpena Gasteizeko Izaskun Arrue Kulturgunean

Elkarrizketa Ane Elordi Alburquerque KORRIKA arduradunari[1].

Zer da KORRIKA?

Ane: KORRIKA lasterketa erraldoi[2] bat da, euskararen alde[3].

Zertarako da KORRIKA?

Ane: euskara bultzatzeko[4] eta AEKren lana ekonomikoki laguntzeko[5].

Nork antolatzen[6] du KORRIKA?

Ane: AEKk antolatzen du.

Noiz izango da 24. KORRIKA?

Ane: 2026ko martxoaren 19tik 29ra.

Hamaika egun gelditu gabe[7]?

Ane: Bai. Gauez, egunez, euripean[8], elurpean[9]... beti korrika.

Nondik nora joango da?

Ane: Atharratzetik (Zuberoa) Bilbora.

Zenbat kilometro izango dira?

Ane: 2000 kilometro baino gehiago[10] izango dira.

Eta nor omenduko[11] du 24. KORRIKAk?

Ane: 24. KORRIKAk Errigora omenduko du, euskararen alde eta euskaraz lan egiten dutelako.

Zergatik "Euskara gara" leloa[12]?

Ane: Euskarak egiten gaituelako gu. Guztiok gara beharrezko[13], guztiok herri bat gara. Euskaraz eroso[14] bizi nahi dugu. Hori da mezua[15].

Nola hartzen da parte[16] KORRIKAn?

Ane: Modu asko daude: korrika eginez, KORRIKA kulturalean parte hartuz, KORRIKA batzordeetan[17] lan eginez, KORRIKA LAGUN eginez, KORRIKA-AEK aplikazioa deskargatuz...

Hiztegia:

[1] Arduradun: responsable
[2] Lasterketa erraldoi: carrera gigante; *course géante*
[3] ...-ren aldeko: a/en favor de...; *en faveur de...*
[4] Bultzatzeko: para impulsar; *pour promouvoir, pour soutenir*
[5] Laguntzeko: para ayudar; *pour aider, pour soutenir (financièrement)*
[6] Antolatu: organizar; *organiser*
[7] Gelditu gabe: sin parar; *sans s'arrêter*
[8] Euripean: bajo la lluvia; *sous la pluie*
[9] Elurpean: bajo la nieve; *sous la neige*
[10] Baino gehiago: más que...; *plus que...*
[11] Omendu: homenajear; *rendre hommage*
[12] Lelo: eslogan; *slogan*
[13] Beharrezko: necesario/a; *nécessaire*
[14] Eroso: cómodo/a; commode
[15] Mezu: mensaje; *message*
[16] Parte hartu: tomar parte, participar; *prendre part, participer*
[17] Batzorde: comité; *comité organisateur*

24.korrika aek
Euskara gara
Atharratzetik Bilbora
2026ko martxoaren 19tik 29ra

24. KORRIKA



Ane Elordi, KORRIKA arduraduna
(Zornotza, 1991)



1. KORRIKA
(1980, Oñati-Bilbo)



Errigora
24. KORRIKAren omendua



23. KORRIKA Nafarroan, Tuteran.



KORRIKAren lekukoa.
Barruan, mezua gordetzen du.



KORRIKAren amaiera
(23. KORRIKA, Baionan)

► **Azpimarratu forma zuzenak, eta gero erantzun: egia ala gezurra dira?**
Subraya las formas correctas, y después responde: ¿son verdaderas o falsas?
Soulignez les formes correctes, puis répondez: sont-elles vraies ou fausses?

E	G	
☐	☐	1. KORRIKA hizkuntzen aldeko lasterketa bat **da / du / dira**.
☐	☐	2. KORRIKA **ikastola / ikastolak / ikastolek** antolatzen dute.
☐	☐	3. 24. KORRIKA Atharratzen hasiko da, **martxoaren 19 / 19n / 19an**.
☐	☐	4. KORRIKA **udaberriko / udaberritik / udaberrian** etorriko da.
☐	☐	5. KORRIKA gauez **gelditzen da / gelditu du / geldi du**.
☐	☐	6. 24. KORRIKA Ipar Euskal Herrian amaituko **da / du / dira**.
☐	☐	7. 24. **KORRIKAk / KORRIKA** euskara-irakasleak omenduko ditu.
☐	☐	8. 24. KORRIKAren leloa "Euskara gara" **da / du / zaio**.
☐	☐	9. Lehenengo KORRIKA **Oñatiko / Oñatitik / Oñati** Bilbora joan zen.
☐	☐	10. KORRIKA ez **da / du / dio** Nafarroatik pasatzen.
☐	☐	11. KORRIKAren lekuko barruan mezu bat **dago / daude / nago**.
☐	☐	12. Azken KORRIKA **Gasteiz / Gasteizen / Gasteizean** amaitu zen.

"KORRIKA LAGUNTZAILEAK BIZITZA ALDATU DIT"

Miren, KORRIKA Laguntzaile egin aurretik.



Miren, KORRIKA Laguntzaile egin ondoren.



Oso zorte txarra nuen. Ez nuen lanik. Nire plan guztiak gaizki ateratzen ziren; lagunek beti zuten "zerbait": ezkontza[1] bat, hileta[2] bat, lapikoa sutan... Arraintxoa erosi eta egun batera ito zitzaidan. Ez nekien zer zen semaforo berde bat. Eta horrela beti...

Baina egun batean, AEKko lagun batek KORRIKA Laguntzailea izatea proposatu zidan, eta baietz esan nion; bada, bizitza goitik behera aldatu zait: lanean nabil; lagunak ezin dira[3] ni gabe[4] bizi; telefonoz gestio bat egiten dudanean[5], beti izaten da langile jator bat libre, niretzat. Gauetik goizera, infernua paradisu bilakatu[6] zait!".

Hiztegia:

[1] Ezkontza: boda; *le mariage*
[2] Hileta: funeral; *funéraille*
[3] Ezin dira: no pueden; *ils/elles ne peuvent pas*
[4] Ni gabe: sin mí; *sans moi*
[5] Egiten dudanean: cuando hago; *quand je le ferai*
[6] Bilakatu: convertir; *est devenu*
[7] Zain: esperando; *il attend*
[8] ...-ren alde: a/en favor de...; *en faveur de...*

Egin zaitez KORRIKA Laguntzaile.
Paradisua zure zain[7] dago!
Euskararen alde[8]!

Euskara gara

► **Azpimarratu forma zuzenak, eta gero erantzun: egia ala gezurra dira?**
Subraya las formas correctas, y después responde: ¿son verdaderas o falsas?
Soulignez les formes correctes, puis répondez: sont-elles vraies ou fausses?

E	G	
☐	☐	1. KORRIKA Laguntzaile egin aurretik, **Miren / Mirenek** pozik bizi zen.
☐	☐	2. KORRIKA Laguntzaile egin aurretik, **lagunak / lagunek** plan asko egiten zuten Mirenekin.
☐	☐	3. Orain, **Miren / Mirenek** ez dauka lanik.
☐	☐	4. Orain, Mirenen **lagunak / lagunek** ezin dira bera gabe bizi.
☐	☐	5. Orain, **Mirenek / Miren** zorte handia dauka, eta zoriontsua da.

Kalean da 24. KORRIKA-kanta: *Xiberutikan Mendebaldera*



Irudia (AEK): kantaren aurkezpena (Erramun, Ane, Pello eta Maixus)

► **Hemen behean, kantan parte hartu duten artista batzuk ezagutuko dituzu:**

Pello Reparaz Escala (Arbizu, Nafarroa Garaia, 1990)

Musikari, konpositore eta ekoizle[1] ezaguna[2] .... (1), eta 24. KORRIKA-kantaren sortzaile[3] eta zuzendari[4] artistikoa; ahotsa[5] ere jarri du.

16 urterekin, Vendetta (2007-2018) .... (2) sortu zuen (ska eta punk musika-estiloak lantzen zituen); 29rekin, Zetak taldea (musika pop-elektronikoa egiten dute). Lehen diskoko *Errepidean* .... (3) denbora gutxian milioi bat bisitari[6] baino gehiago izan zituen sare sozialetan. Antzekoa[7] gertatu zen[8] 2019an *Zeinen ederra izango den* abestiarekin. 2018.-2019. urteetan, ... (4) *Euskalonski* telebista-saioa[9] aurkeztu[10] zuen: munduan bizi diren euskaldunak bisitatzen zituen.

2022an, Herri Urratseko abestiarekin itzuli[11] zen Zetak taldea; Erramun Martikorenarekin egin zuten *Itzulera* kanta, eta erabateko[12] estilo-aldaketa izan zen. 2025ean, Euskal Herriko hiru hiriburutan ikuskizun[13] berezi[14] bat antolatu du: *Mitoaroa*. Bertan, musika, dantza eta antzerkia batu .... (5).

Erramun Martikorena, *Otsobi* (Baigorri, Nafarroa Beherea, 1943)

Artzaina[15] eta laboraria[16] .... (6). Ez da profesionala, ... (7) oso abeslari ezaguna da. Haren kantuak lurrari eta herriari lotuta .... (8). 24. KORRIKA-kantan ahotsa jarri du.

Ipar Euskal Herriko bertsolarien bertsoak eta herri-kantuak kantatzen .... (9), askotan *a cappella* (musika-tresnarik gabe). Xabier Leteren *Xalbadorren heriotzean* kantarekin egin zen ezagun eta, gaur egun[17], erreferente da euskal musikan.

Maixux Zugarramurdi Zestau (Goizueta, Nafarroa Garaia, 1955)

Abeslaria da, eta 24. KORRIKA-kantan ahotsa jarri du. 2024an Zetak taldearen *Hileta kantu nafarra* grabatu eta gero egin zen ezagun. Lehenago ere abesten zuen, baina ez zen oso famatua.

.... (10) etxe-giroan, abesbatzetan[18] eta tokiko ekimenetan[19] abesten zuen; baina, 2017an, bere hiru alabek animatu egin zuten, eta, haiekin, *Artantxuriketa* ikuskizuna aurkeztu zuen.

Iturria: eu.wikipedia (moldatuta)

Hiztegia:

[1] Ekoizle: productor/a; *producteur*
[2] Ezagun: conocido/a; *célèbre*
[3] Sortzaile: creador/a; *créateur*
[4] Zuzendari: director/a; *directeur, directrice*
[5] Ahots: voz; *voix*
[6] Bisitari: visitante; *visiteur,-euse*
[7] Antzekoa: parecido; *similaire*
[8] Gertatu zen: ocurrió; *c'est arrivé*
[9] Saioa: programa; *émission*
[10] Aurkeztu: presentar; *présenter*
[11] Itzuli: volver; *retourner*
[12] Erabat: totalmente; *absolu,-e*
[13] Ikuskizun: espectáculo; *spectacle*
[14] Berezi: especial; *spécial*
[15] Artzaina: pastor/a; *berger*
[16] Laboraria: agricultor/a; *agriculteur*
[17] Gaur egun: hoy en día; *actuellement*
[18] Abesbatza: coro; *chorale*
[19] Ekimen: iniciativa; *initiative*

► **Azpimarratu forma zuzenak:**

1. du / da / dio
2. taldea / taldeak / taldeek
3. kanta / kantak / kantek
4. Pello / Pellok
5. ditu / zaio / dio
6. du / da / dio
7. baina / edo / ala
8. nago / dago / daude
9. ditu / du / dira
10. Maixux / Maixuxek

24. KORRIKA-kanta

Xiberutikan Mendebaldera

Herensugeren ..... [1]
Santa-Grazitikan
Zarrakaztelura

Eta Errigoraren auzolan ..... [2]
Eskutik eskura
Hori ere bagara

Sorgin baten azken ..... [3]
Itoizko kaleetan

Zer gara euskara bera ez bagara
Maixux eta Erramunen ..... [4]

Maitasun eskutitz baten bide luzea
Xiberutikan Mendebaldera
Junkeraren fandango berri bat bezala
Bidaia berri baten bila

Ko! rri! ka!
Arranoaren hegaldia lumadi berriaz
Ko! rri! ka!
Irrintzi zahar bat aho gaztetan
Gailur berrietan

Basurdearen ..... [5] gara
Elorretatikan
Agurainaldera

Larruz eraikitako milaka ..... [6]
Dajlatik Gazara
Hor da gure gogoa

Ezkerraldeko AEK
Saretuz ..... [7]

Artzain gazte bat kontu zaharretan
Bariñako Bidane Baskaran

Maitasun eskutitz baten bide luzea
(errepika)
Ko! rri! ka!
(errepika)

..... [8] bat gâteau batean baino
Euskara gara

Ilargirik gabe mareak ..... [9]
Nola bestela?
Nola bestela?

Maitasun eskutitz baten bide luzea
(errepika)
Ko! rri! ka!
(errepika)

► **Entzun kanta eta bete hutsuneak (aukerak):**

AZTARNA	ITZALA	KANTA
GORA	EREDUA	LAUBURU
LURRA	HERRIAN	ETXOLA

ERRONKA: *baietz errepika buruz ikasi!*

FITXA TEKNIKOA:
Musika eta hitzak: Pello Reparaz (ZETAK)
Programazio eta grabaketak: Pello Reparaz
Ahotsak: Pello Reparaz, Maixux Zugarramurdi, Erramun Martikorena

Koroak: Maider, Ainhoa eta Arantxa Ansa
Koroak: Naizen elkartea
Ekoizpena: Pello Reparaz
Nahasketa: Paxkal Etxepare
Mastering: Simon Capony

Gustatu zaizu kanta?
Eta bideoklipa?

- ☐ *Bai, (izugarri) gustatu zait.*
- ☐ *Bai, baina...*
- ☐ *Ez, ez zait gehiegi gustatu.*
- ☐ *Ez dakit zer esan.*
- ☐ *Nire ustez...*



1. JARDUERA: BADATOR 24. KORRIKA!

- KORRIKAz zer dakiten galdetuko dugu, eta ea aurreko edizioan parte hartu zuten.
- Bideoa[1] ikusi, eta irudien laguntzaz, KORRIKA zer den ez dakitenei oinarrizko azalpenak eman eta jarduera azalduko dugu.
- Bakarka, elkarrizketa irakurri eta ariketa egingo dute (2.-3. or.).
- Ondoko ikasleekin egindakoa alderatuko dute, eta elkarri zalantzak argitzen saiatuko dira.
- Talde handian zuzenduko dugu.

Oharra: online bertsioa ere badago (https://korrika.h5p.com/content/1292712691560999677).

ERANTZUN ZUZENAK (AZPIMARRATUTA):

1. KORRIKA hizkuntzen aldeko lasterketa bat **da**. GEZURRA (euskararen aldekoa da)
2. KORRIKA **ikastolek** antolatzen dute. GEZURRA (AEKk antolatzen du)
3. 24. KORRIKA Atharratzen hasiko da, **martxoaren 19an**. EGIA
4. KORRIKA **udaberrian** etorriko da. GEZURRA (neguan etorriko da)
5. KORRIKA gauez **gelditzen da**. GEZURRA (ez da inoiz gelditzen)
6. 24. KORRIKA Ipar Euskal Herrian amaituko **da**. GEZURRA (han hasiko da, Atharratzen)
7. 24. **KORRIKAk** euskara-irakasleak omenduko ditu. GEZURRA (Errigora omenduko du)
8. 24. KORRIKAren leloa "Euskara gara" **da**. EGIA
9. Lehenengo KORRIKA **Oñatitik** Bilbora joan zen. EGIA
10. KORRIKA ez **da** Nafarroatik pasatzen. GEZURRA (Euskal Herri osotik pasatzen da: Gipuzkoa, Araba, Bizkaia, Nafarroa Garaia, Nafarroa Beherea, Lapurdi eta Zuberoa)
11. KORRIKAren lekuko barruan mezu bat **dago**. EGIA
12. Azken KORRIKA **Gasteizen** amaitu zen. GEZURRA (23. edizioa Baionan amaitu zen)

- **AEK zer den** azaltzeko une ona izan liteke. Horretarako, esteka hau bidaliko diegu, eskolaz kanpo ikus dezaten nahi izanez gero: https://www.youtube.com/watch?v=3kzfLoVO3Ag (azpidatziak gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez daude).
- **24. KORRIKAren SPOTA** ikusi eta komentatuko dugu (azpidatziak gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez daude): https://www.youtube.com/watch?v=L8te2fngQFs&t=18s

- **Solasaldia** egingo dugu. Eskolan adi egon ote diren ikusteko eta solasaldia egiten laguntzeko, pantaila handian galderak eta irudiak ikus ditzakegu[2]. Nahi izanez gero, "txapelketa" ukitua ere eman diezaiokegu: ikasleak binaka jarri, puxtarriak banatu...
  Bestela, Kahoot bidezko txapelketa egin dezakegu[3] (Zer dakizu KORRIKAz? A1-A2).



- Amaitzeko, **KORRIKAri lotutako lexikoa ikasteko jolasa** egin dezakezue (ikus 8. or.).

---

[1] Bideoa: **Korrika.eus** webgunean **"Bideokronikak 23"** idatzita hauxe agertuko da. Aukeratu zure eskualdekoa (2-4 minutu ingurukoak dira): https://www.korrika.eus/eu/component/yendifvideoshare/search?s=Bideokronika

[2] Ikusi "**Solasaldirako BADATOR 24. KORRIKA.pdf**", (".odp" dokumentua ere eskura duzue, editagarria).

[3] **Zer dakizue KORRIKAz? A1-B1 (Kahoot):**
https://create.kahoot.it/details/37406758-c110-4f4d-aec0-7100bd3305be (Irakaslearentzat)
https://kahoot.it/solo/?quizId=37406758-c110-4f4d-aec0-7100bd3305be (Bakarka)

JARDUERA OSAGARRIA:

► 1. JARDUERA egin eta gero, **KORRIKAri lotutako lexikoa ikasteko jolasa** egin dezakezue. Horretarako, pantaila handian, **"Lexiko berria ikasten" PDFa ireki** behar duzue.

"KORRIKAri buruzko LEXIKO BERRIA IKASTEN" JOKOA

Jokoaren helburua

Testuan agertuko den lexiko berria ikasteko, ETB1eko *Mihiluze* lehiaketa ezaguneko *Tribuaren berbak* jokoaren prozedurari jarraituko diogu. Beraz, jokoaren helburua izango da hitz guztien esanahia jarraian asmatzea.

Jokoaren arauak

- Ikasleak talde txikitan banatuko ditugu.
- "Lexiko berria ikasten" PDFa ordenagailuaren edo telebistaren pantailan jarriko dugu. Jarri dokumentua "aurkezpen" moduan, pantaila osoa bete dezan.
- Klik eginda, hitzak eta esanahiak agertzen diren lehenengo orrira igaroko gara, eta hasiera emango diogu jokoari. Orri horretan, pantailaren ezkerrean, hamaika hitz agertuko zaizkigu euskaraz; eskuinean, aldiz, hitz horiek gaztelaniaz eta frantsesez.
- Lehendabiziko hitza azpimarratuta agertuko zaigu. Lehenengo jokalariak esan beharko du hitz horrek zer esan nahi duen, eskuineko hitzen artean aukera eginez.
- Aukera bakarra izango dute jokalariek hitza asmatzeko. Asmatuz gero, klik eginda hurrengo orrialdera joango gara. Hortxe erantzuna ikusiko dugu, eta hurrengo hitza azpimarratuta agertuko zaigu.
- Hitzak asmatu bitartean, jokalariek beren txandari eutsiko diote; hitzen batekin okertuz gero, aldiz, hasierako pantailara itzuliko gara, eta hurrengo jokalarien txanda izango da.
- Jokalari batzuek, jarraian, hitz guztien esanahiak asmatzen dituztenean, orduan irabaziko dute jokoa.









► **Ariketa ONLINE egiteko, jo hona: KORRIKA LEXIKOA IKASTEN**
https://korrika.h5p.com/content/1292128922913403897

2. JARDUERA: KORRIKA LAGUNTZAILEA ETA MIRENEN ZORIONTASUNA

- KORRIKA Laguntzaileak ote diren galdetuko diegu, eta ea aurreko edizioetan zozketaren batean saririk irabazi duten... Zer den ez dakitenei azalpen laburra emango diegu.
- Bakarka, Mirenen "testigantza" irakurriko dute, eta ariketa egingo dute (4. or.).
- Ondoko ikasleekin, egindakoa alderatuko dute, eta elkarri zalantzak argitzen saiatuko zaizkie.
- Talde handian zuzenduko dugu ariketa.
- Amaitzeko, KORRIKA Laguntzaile egitera animatuko ditugu (paperean edo online egin daiteke).

ERANTZUN ZUZENAK (AZPIMARRATUTA):

1. KORRIKA Laguntzaile egin aurretik, **Miren** pozik bizi zen. GEZURRA
2. KORRIKA Laguntzaile egin aurretik, **lagunek** plan asko egiten zuten Mirenekin. GEZURRA
3. Orain, **Mirenek** ez dauka lanik. GEZURRA
4. Orain, Mirenen **lagunak** ezin dira bera gabe bizi. EGIA
5. Orain, **Mirenek** zorte handia dauka, eta zoriontsua da. EGIA

KORRIKA LAGUNTZAILEAri buruzko oinarrizko informazioa:
https://www.korrika.eus/eu/laguntzailea/izan-laguntzailea

3. JARDUERA: KORRIKA-AEK APLIKAZIOA

- Aplikazioa ezagutzen duten galdetuko diegu: ea aurreko edizioetan deskargatu zuten...
- Guk Miren bezain zoriontsu izan nahi dugula esan, eta aplikazioan laguntzaileentzako "txokoa" ezagutzera gonbidatuko ditugu. Horretarako, aurretik, informazioa emango diegu (komeni da guk deskargatua izatea azalpenak emateko): zer den, zer duen, nola deskargatu... Deskargatzeko:

  - ANDROID: https://play.google.com/store/apps/details?id=com.korrika.eus&hl=eu
  - IOS (APPLE): https://apps.apple.com/es/app/korrika-app-ofiziala/id6471959224

- Ariketa praktikoa proposatuko dugu: eskolan bertan aplikazioa deskargatu (aukerakoa izango da, jakina), eta, ondoren, binaka jarrita, hainbat galdera egingo diegu:

  - Nork irabazi dute aste honetako saria? Zein sari izan dira?
  - Nondik nora joango da 24. KORRIKA zuen herrian (edo eskualdean)?
  - ...

4. JARDUERA: KALEAN DA 24. KORRIKA-KANTA!

- Korrika-kantarik ezagutzen ote duten galdetuko dugu. Ezagutzen badute, kanta dezatela gogoratzen duten zatiren bat...
- Aurtengo kanta jada aurkeztu dela esan, eta bideoklipa[1] ikusiko dugu eskolan.
- Zer iruditu zaien komentatu, eta utziko diegu kantariez eta bideoklipean agertutako pertsonez zer dakiten esaten. Kantaren itzulpena 11. orrialdean dago.

- Biografiak irakurri, eta hutsuneak betetzeko ariketa egingo dute (5. or.).
- Talde handian zuzenduko dugu.

ERANTZUN ZUZENAK (AZPIMARRATUTA):

1. du / **da** / dio
2. **taldea** / taldeak / taldeek
3. kanta / **kantak** / kantek
4. Pello / **Pellok**
5. **ditu** / zaio / dio
6. du / **da** / dio
7. **baina** / edo / ala
8. nago / dago / **daude**
9. **ditu** / du / dira
10. Maixux / **Maixuxek**

- Kanta berriro entzungo dugu[1] eta, entzun bitartean, irakurri eta hutsuneak beteko dituzte (6. or.).
- Talde handian zuzenduko dugu.

ERANTZUN ZUZENAK:

1. ITZALA; 2. EREDUA; 3. KANTA; 4. HERRIAN; 5. AZTARNA; 6. ETXOLA; 7. LURRA; 8. LAUBURU; 9. GORA.

- Berriro entzungo dugu, eta kantatzera ere gonbidatuko ditugu; ondoren, erronka botako dugu: ea zeinek ikasten duen buruz aurtengo kanta! Edo errepikak!

  Oharra: ez dute kanta osoa ulertuko, baina errepikatzen diren pasarteetan jarriko dugu arreta.

- Solasaldia egingo dugu: zein KORRIKA-kanta gustatzen zaien gehien, zein musika-estilo duten gustuko, euskal musika entzuten ote duten, zein euskal musikari edo talde duten gogoko...

  Oharra: nahi izanez gero, hemen dituzue edizio guztietako Korrika-kantak: https://www.argia.eus/albistea/korrika-abesti-guztien-bilduma

- **Badok.eus** ezagutzen ez badute, gunea aurkezteko aprobetxa dezakegu unea.

---

[1] Bideoklipa: **Xiberutikan Mendebaldera (24. KORRIKA-kanta)**
https://www.korrika.eus/media/videos/2025/12/20/xiberutikan_mendebaldera2.mp4

GAZTELANIAZ:

Xiberutikan Mendebaldera

La sombra de Herensuge
Desde Santa Engracia
A Carcastillo

El ejemplo de auzolan
de Errigora
De mano en mano
También somos eso

El último canto de una
bruja
En las calles de Itoiz

Qué somos si no es el
mismo euskera
En el pueblo de Maixux
y Erramun

**El largo camino de
una carta de amor
De Zuberoa al oeste
Como un nuevo
fandango de Junkera
En busca de un
nuevo viaje**

**Ko! rri! ka!
El vuelo del águila
con nuevo plumaje
Ko! rri! ka!
Un viejo irrintzi en
bocas jóvenes
En nuevas cumbres**

Somos la huella del
jabalí
Desde Elorreta
Hacia Salvatierra

Miles de cabañas de
cuero
Desde Dajla hasta Gaza
Ahí está nuestra
voluntad

AEK de la Margen
Izquierda
Tejiendo la tierra

Una joven pastora en
asuntos antiguos
Bidane Baskaran de
Bariña

**El largo camino de
una carta de amor
(errepika)
Ko! rri! ka!
(errepika)**

Más que un lauburu en
un gâteau
Somos Euskera

Marea alta sin luna
¿De qué manera?
¿De qué manera?

**El largo camino de
una carta de amor
(errepika)
Ko! rri! ka!
(errepika)**

FRANTSESEZ:

Xiberutikan Mendebaldera

L'ombre d'Herensuge
De Sainte-Engrâce
À Zarrakaztelu

L'exemple d'entreaide
d'Errigora
De main en main
Nous sommes cela
aussi

Le dernier chant d'une
sorcière
Dans les rues d'Itoiz

Que sommes-nous si ce
n'est le même euskera
Dans la terre de Maixux
et Erramun

**Le long chemin d'une
lettre d'amour
De Soule à l'ouest
Comme un nouveau
fandango de Junkera
À la recherche d'un
nouveau voyage**

**Ko ! rri ! ka !
Le vol de l'aigle avec
un neuf plumage
Ko ! rri ! ka !
Un vieil Irrintzi dans
des jeunes bouches
Sur de nouveaux
sommets**

Nous sommes la trace
du sanglier
Depuis Elorreta
Vers Salvatierra

Des milliers de cabanes
en cuir
De Dajla à Gaza
Voilà notre volonté

AEK de gauche
Tissant la terre

Une jeune bergère dans
les affaires anciennes
Bidane Baskaran de
Bariña

**Le long chemin d'une
lettre d'amour
(errepika)
Ko ! rri ! ka !
(errepika)**

Plus qu'un lauburu sur
un gâteau
Nous sommes l'euskera

Marée haute sans lune
De quelle manière ?
De quelle manière ?

**Le long chemin d'une
lettre d'amour
(errepika)
Ko ! rri ! ka !
(errepika)**

FITXA TEKNIKOA (KANTA):

Musika eta hitzak: Pello Reparaz (ZETAK)
Programazio eta grabaketak: Pello Reparaz
Ahotsak: Pello Reparaz, Maixux Zugarramurdi, Erramun Martikorena
Koroak: Maider, Ainhoa eta Arantxa Ansa
Koroak: Naizen elkartea
Ekoizpena: Pello Reparaz
Nahasketa: Paxkal Etxepare
Mastering: Simon Capony

